1968ko MAIATZA BERAN

1968ko maiatza Parisen! Zer izan zen hura! Karriketan sua, estudiante jendeak biztua. Errepublikako hiriburutik hasi eta Frantzia osoan, iskanbila gogorrak. Lurrikara bat, munduaren historian izan diren bertze hainbertzeren gisakoa. Gerora, haren ondorioak ezarian-ezarian hedatuko ziren bazter guzietara.

Eta zer izan ote zen denbora hartan Beran?

Hemen ere bizimodua fuerte kanbiatzen ari zen. Zalain Berako landa-zelaietan lehenbiziko fabrikak martxan hasiak ziren; Lanbide Heziketako eskolak urte bat beteko zuen, lehenago Alondegia izaniko eta gaur egun Kultur Etxea den horretan; aparatu berriak eskaintzen ziren dendetako leihoetan: labadorak, frigorifikoak, plantxak, telebistak...

Hamar-hameka urteko mukizuok batxilerreko lehenbiziko kurtsoko hondarreko lanak egiten ari ginen Maristena erraten genion eskolan, padre Martin hiru-erregeren-sorgin harekin, sagarroiaren orratzak bezalako ilea zuen apez saltseroarekin. Handik guttira Irunera joan beharko genuen, libre gisara, etsaminak egitera.

Baina horren aitzinetik hilabetearen laua ailegatu! Eta hura egun seinalea izan zen herrian, bisitari ilustre bat izan baikenuen! Orduan Informazio eta Turismoko ministro zen Manuel Fraga Iribarne! Alkaiagako kanpina inauguratzera etorri zen. Camping Bidasoa. Urte hartako primaberan, aurten bezalaxe, euri dexente bota izan behar zuen, gogoan baitut zenbat lohi zegoen auzoko bidean. Kamioiak jo eta fuego ibiliak ziren lurra garraio, Bidaso bazterra betetzeko eta instalazioetako sarrera nahi zuten maneran paratzeko. Ministroak etorri behar zuen egunaren bezperan itsuski zegoen Berako karreteratik kanpinera bitarteko puska. Zer egin? Harria bota! Harria bota, ausarki! Batere gupidarik gabe!

Agintari handiaren eta harekin batera heldu ziren apalagoen gurdientzat legar larrizko alfonbra bat prestatu zuten, lohi ttantten arrastorik ez izateko lustrea eman berriko espantuzko Dodge haietan. Maldizio bat baino gehiago aditu zen ondoko egunetan, harri kozkor haiek zirela medio, bidea nola utzi zuten ikusita. Ez aunitz, baina zenbatbaitere jende hurbildu zen, deus ikusten ahal ote zen automobilen kristal ilunen gibelean. Ez naiz oroitzen, ordea, inork esku joka errezibitu ote zituen, egunkariren batean irakurri dudan bezala.

Fraga jauna Etxalarko Bentara bazkaltzera joan zen gero. Udaberriko perretxikoak eta Bidasoko izokina izan omen zituzten banketean. Ardorik ez zen faltako. Ondotik Lesakara, kanpina hango lurretan baitzen. Eta han herriko gazteek Zubigainekoa dantzatu zuten Francoren Gobernuaren ordezkariaren aitzinean.

Gizonak eskerrak eman zituen bazkariarengatik eta bidasotarrok hain ongi hartu genuelakoz, eta gure folklorea eta mendialdeak hagitz gustatu zitzaizkiola aipatu omen zuen. Hondarreko, Agi_an barna eraman zuten Gipuzko aldera, gerra denboran Beorlegi koronela ibiliko parajeak erakutsi bidenabar.

Kanpinarena ez zen izan urte hartan Bidasoalde honetan arrastoa utzi zuen gertaera bakarra. Ezin denak hunat ekarri, baina haietako bat bederen aipatu nahi nuke, ahantzi gabe. Uda pasatu ondotik izan zen, irail aldera, ikasturte berria hastearekin. Bakarren batek behar ziren hari-muturrak lotu eta autobusa antolatu zen, bortz herriotako batxilerreko ikasleak egunero Pio Baroja Institutura joateko. Hala, ikasle ofizialen gradua izanen genuen. Lehenago ez zen egundaino halakorik ezagutu gure eskualdean. Fraide edo moja eskolaren batera joaten zirenak kenduta, gainerako guziok libre modura egin behar izaten genituen azterketak.

Institutu hura ez zen Parisko ikasleen Nanterreko Unibertsitatea, baina urte hartatik aitzinera Irunera joan-etorrian ibiltzeko suertea izan genuenok, gere historia propioa idazteko tenorean, nahitaez kontuan hartu beharreko mugarria izan zen 1968 hura.

Mikel Taberna Irazoki, "Kapi"